

Lezoko liburutegiak XV. ipuin eta olerki lehiaketak antolatu ditu

Azaroaren 17tik 21era aurkeztu beharko dituzte Andreonen 6 eta 15 urte bitarteko gazteek lanak.

Lezo. XV. Jon Garbizu olerki lehiaketan eta XV. Lope Isastiko ipuin txapelketan parte hartzeko aukera izango dute 6 eta 15 urte arteko Lezoko gazteek eta Andreone liburutegiko bazkideek. Horretarako, azaroaren 17tik 21era aurkeztu beharko dituzte gehienez hiru orri izango dituzten lanak, liburutegian.

Antolatzaileek gogorarazi dute lanak aurkezteko zenbait baldintza daudela: lan bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztu behar da. Kanpoaldean lanaren izenburua eta egilearen adina jarri behar dira. Barruan, berriz, helbidea, telefonoa eta izen-abizenak. Lanari azala jarri behar zaio eta bertan lanaren izenburua agertu behar da. Horrez gain, lehen aipatutako gutunazala lanari grapaz josi behar zaio.

Adinak kontutan hartuta bost maila ezberdin izango dira eta sariak abenduaren 12an 19.00etan banatuko dira. Maila eta arlo bakoitzeko irabazleek 100 euroko txartela eskuratuko dute liburuak erosteko. >a.m.